

## **HKEE-REN PRENTSA OHARRA, ZUMARRAGAKO UDALAREN 2006-KO FISKALIZAZIO TXOSTENARI BURUZKOA.**

---

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Zumarragako Udalaren 2006ko ekitaldiaren gaineko fiskalizazio lana mamitu du. Txostena aho batez onetsi dute HKEEren Osokoaren kideek.

Udalaren, Toki Erakunde Autonomoaren eta bere Sozietate Publikoaren Kontu Orokorren fiskalizazio txostenak legezketasunari buruzko alderdiak besarkatzen ditu aurrekontu, sarrera, zorpetze, langileria, diru-laguntza eta administrazioko kontratazioaren alorrean; baita kontuen aurkezpenarekin lotutako kontularitzako alderdiak ere.

Legezketasunaren atalean, HKEEk udal jarduerari buruzko iritzi orokorra eman eta indarreko araudia zuzentasunez bete dela adierazi du. Iritzi honi hainbat salbuespen egin zaizkio eta txostenean bertan daude zehaztuak.

Ondasunen besterentzeari dagokionez, HKEEk uste du etxebizitzak eraikitzeke udal lursail bat merkataritza lokal batekin eta balioaren aldea eskudiruarekin trukatzea ez dagoela justifikatua, Toki Entitateen Ondasunen Erregelamendua urratzen baitu eta publizitate eta lehia printzipioak saihesten.

Langileriari dagokionez, HKEEk adierazi du Udalak aldi baterako hiru kontratu gauzaterakoan eta bitarteko bi funtzionario izendatzean ez dituela berdintasun, merezimendu eta gaitasun printzipioak bermatu. Berebat, onetsitako enplegu publikoko eskaintzetan ez dira barne hartu aurreko ekitaldietako bitarteko bi lan kontratu eta kontratuaren xedea jada iraungia duten obra edo zerbitzu jakineko bi kontraturi ere eusten die.

Administrazioko kontratazioari dagokionez, txostenak dio Udalak 300.546 euro egin duten lursailak erosi dituela, horretarako adituen txostenik batere izan gabe.

Atal honetan bertan dio urratu egin dela Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratua hainbat esleipenetan eta kopuru ezberdinekin, izan ere, kontratu txikiaren moldea, kreditu egoki eta behar hainbatekorik ez izatea, izapidetu

gabeko kontratu aldaketak, lehiaketan betekizun batzuk ez betetzea eta kontratuen zatikapena egin baita eta honek guzti honek publizitate eta lehia printzipioak urratzen baititu.

Udalak diru-laguntza zuzenak eman ditu eta honenbestez, diru-laguntzen kudeaketan buru egin behar duten publizitate, gardentasun, lehiaketa, objektibotasun, berdintasun eta ez diskriminazio printzipioak urratu ditu.

Kontu Orokorrari dagokionez, Epaitegiak aldeko iritzia plazaratu du aurkezpen eta edukiari dagokionez, salbuespen izanik ibilgetuko elementuen gaurkotutako ondasun zerrendarik ez izatea, jada 2007an zuzendutakoa, eta kontabilitateari hainbat zuzenketa egin dizkiola, Diruzaintza Geldikina areagotzen duten zorpetutako eta ekitaldi itxieran erregistratu gabeko hainbat eskubide eta gastu kontzeptuan.

Erakunde Autonomo eta Sozietate Publikoari dagokionez, iritzi orokorra da txostenean zehaztu den akatsen bat salbuespen, ekonomia-finantza jarduera arautzen duen lege arautegia bete dutela, nahiz Erakunde Autonomoaren kasuan ez den langileen alorrean lege-araua bete, publizitate, merezimendu eta gaitasun printzipioak urratu direlako eta Lanpostuen Zerrendarik ez dagoelako.

Urteko kontuei dagokienez, iritzia aldekoa da, Erakunde Autonomoari buruzko hainbat salbuespen kenduta, jada txostenean jasoak daudenak.

Halaber, HKEEk barne kontrolari eta kudeaketa prozedurei buruzko hainbat irizpen mahairatu ditu aurrekontu, kontabilitate, langileria, kontratazio eta diru-laguntzen arloetan.

Amaitzeko esan behar da finantza egoerari dagokionez, Udalak behar hainbateko baliabide propioak dituela inbertsio berriei ekiteko, zuhurtziaren muga gordez; betiere, 2008tik aurrera sortu den eszenategi ekonomikoa aintzat hartuta.